

Guraso bilerak antolatzeko prozesua

Gela-ordezkariek helarazitako eskaerari erantzunez, guraso-bilerak antolatzeko prozesua bateratzea eta erraztea erabaki dugu. Hori dela eta, hemendik aurrera Google Calendar aplikazioa erabiliko dugu hitzorduak kudeatzeko.



Prozedura honako hau izango da:

- Hitzordua hartzea: Tutoreek mezu bat bidaliko dizute esteka (*link*) batekin. Bertan klik eginda, saio erabilgarriak ikusiko dituzue eta zuen beharretara hobe den egokitzen den ordua hautatu ahal izango duzue (mesedez, zehaztu ikaslearen izen-abizenak). Hitzordua hartzen duzuen gailuaren ezarpenetan ordua Madril-ekoa dagoela zehaztuta begiratu, bestela ordu aukeraketan akatsak sortu daitezke.
- Segurtasuna eta konfidentzialtasuna: Ordu tarte bat hautatutakoan, aukera hori automatikoki desagertuko da zerrendatik. Sistema honek erabateko konfidentzialtasuna bermatzen du: gainerako familiek ezingo dute ikusi nork hartu duen ordu bakoitza.
- Gogorarazpena: Bilera data hurbildu ahala, sistemak mezu bat bidaliko dizue automatikoki, hitzordua gogorarazteko.

Edozein zalantza izanez gero, jar zaitezte tutorearekin harremanetan.

Jangela: martxoko menua

Hone hemen martxoan jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#) eta baita [menu berezia](#) behar duten bazkaldarrena ere.



Martxoak 8

Aste osoan zehar Martxoaren 8ko gaia landuko dugu ikasgeletan.

Egun hauek erabiliko ditugu ikasleekin egun honen historiari buruz hitz egiteko, egungo errealitatea pixka bat hobeto ulertzeko eta guztion artean berdintasuna eraikitzen jarraitzea zergatik den horren garrantzitsua jabetzeko.



Horrez gain, astea amaitzeko, martxoaren 6an, ostiralean, ikastolara kolore moreko arroparen bat edo xehetasunen bat jantzita ekartzeko eskatzen dizuegu.

Errigoraren kanpaina berria martxan da

Martxoaren 18ra bitarte izango da Errigoraren "Eskutik eskura egiten dugu herria" kanpaina. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztako produktuak eskuratzearen truke, irabazien laurdena zonalde hartako euskalgintzara bideratuko da beste behin. Aurtengo 24. Korrikak Errigora egitasmoa omendu nahi du. "Hiru ardatz nagusi ditu Errigorak: euskara, auzolana eta elikadura-burujabetza.

Oraingo honetan, oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorriko prezioan erosi ahalko dituzue. Eskabideak ohi bezala, NOAUA! Kultur Elkartean nahiz errigora.eus bidez egin ahalko dituzue. [Informazio gehiago...](#)



Udako udalekuak

Aurten ere, Zirimolak -Ikastolen Aisialdi Taldea- 2026ko **udako kanpainaren eskaintza** interesgarriekin datorkigu.

Izen-ematea **martxoaren 4tik 14ra** egin daiteke. [Informazio gehiago...](#)



Irakurketa-solasaldia

Martxoaren 16an, 17:30ean Sutegi Liburutegian, IRAKURKETA-SOLASALDI saio berri bat; 11-12 urtetik gorakoei zuzendua (**LH6-DBH**), Yolanda Arrietaren **TXOKOLATEGIA** izango dugu **mintzagai**.



Lliburuak jada **eskuragarri** ditugu Liburutegian). Txokolatea tartean izango dugu, nola ez!

Familiak eragile hizkuntzen erabileran

Ikastolen Elkartek antolatuta online izango diren bi hitzaldi datozkigu datozen asteetan.

Lehena Paula Casaresen eskutik izango da **martxoaren 11an, asteazkenez, 18:30-19:30** bitartean: FAMILIAK ETA HIZKUNTZEN GARRANTZIA landuko da bertan.

Bigarrena Kike Amonarrizen eskutik dator, **apirilaren 22an, asteazkenez, 18:30-19:30** bitartean: FAMILIAK ETA HIZKUNTZAREN ATXIKIMENDUAz arituko da.

Hitzaldi hauek entzun ondoren Udarregi ikastolako gurasookin hausnarketa partekatu bat egin nahi genuke.

Animatzen zaretenok eman ezazue izena segidako QR kodea baliatuz hitzaldietarako lotura eskuratzeko edo/eta elkarrekin hausnartu nahi duzuela adierazteko.

Hemen [hormairudia](#)



HAUR HEZKUNTZA

1-2 urteko eta talde mistoko gurasoentzat bilera deialdia

Martxoaren 4an, asteazkena, arratsaldeko **17:00etan** 1-2ko eta talde mistoko gurasoei zuzendutako bilera egingo da haurren gelan.

Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAU **DENOK** ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera DBH1

Datorren ostegunean, hilak 5, Oiartzungo **Arditurri mehatagietara** irteera egingo dugu DBH 1eko ikasleekin. Goizean ikastolatik autobusez joango gara zuzenean Arditurriko Interpretazio Zentrora. Bisitaren ondoren, Oiartzungo bidegorritik barrena ibilbidea egingo dugu.



Itzulera garraio publikoan egingo dugu; beraz, ezinbestekoa izango da **Mugi** txartela ekartzea.

Ikasleek ibiltzeko oinetako egokiak eramatea gomendatzen dugu, eta egun osorako irteera denez, hamaiketakoa, bazkaria eta ura ekarri behar dute. Kontutan izan ibilbidean zehar ez dagoela kantinplora betetzeko aukerarik.

Irteeraren kostua **8 €** izango da.

DBH 4ko familiei zuzenduta

Zuen seme-alaben etorkizun akademiko eta profesionala hurbil dagoela eta, orientazio prozesuan laguntzeko saio berezi bat antolatu dugu ikastolan.

Oteoza Lizeoko ordezkariak etorriko dira guregana Batxilergoko etapari duten eskaintzaren inguruko xehetasunak ematera. Seme-alabek hartu beharreko bideak hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango da.



Hona hemen saioaren xehetasunak:

- **Eguna:** martxoak 12, osteguna.
- **Ordua:** 17:00etatik 18:30era.
- **Lekua:** Udarregi Ikastolako aretoan.

Gure seme-alaben hautuetan bidelagun izatea garrantzitsua denez, zuen parte-hartzea eskertuko genuke.